



2026KO URAREN JAIA ANTOLATZEKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN PLEGUA

1. Kontratuaren xedea

Baldintza teknikoaren plegu honen xedea hau da: PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak Uraren Jaiaren 33. edizioaren esparruan garatu beharreko jarduerak antolatze laguntza teknikoa lizitzatzeko eta adjudikatzeko oinarri izatea.

Ur Partzuergoak urtero antolatzen du ospakizun hori, eta Bizkaiko biztanleak ura erantzukizunez erabiltzearen balioen inguruan sentibilizatzeko eta biztanleok parte hartzeko programaren parte da, bai eta ate irekiei lotutako eta Partzuergoak kontsumorako urak tratatzeko egiten duen lanera hurbiltzeko programaren parte ere.

Aurtengo edizioan, 2026ko Uraren Jaiaren esparruan antolatu beharreko ekitaldiak 2026ko ekainaren 7an, igandean, egingo dira, 10:30etik 19:00etara arte jendearentzat zabalik egongo den ordutegian, eta honako gune hauek erabiltzeko aukera egongo da: Agirre Lehendakariaren parkea (Arrigorriaga) eta Udaletxeko plaza, atxikita doan 1. zenbakiko planoan mugatutako eremuak, baita Beteluriko EUTko (Arrigorriaga) instalazioen barruko eremuak ere. Hori guztia enpresa adjudikatzailerik garatu beharreko eskaintzaren barruan dagoen bisita-programaren arabera eta plegu honen oinarriekin bat etorritik.

2. Helburu orokorrak

Uraren Jaiaren esparruan antolatutako ekitaldien helburua da uraren kontsumoaz arduratzen diren praktikei buruzko kontzientzia soziala areagotzen laguntzea eta Beteluriko EUTn egiten diren prozedurak ezagutaraztea, herritarren partaidetza hori errazteko, herritar guztien ahaleginarekin Ur Partzuergoaren ardurapeko instalazio horietan egiten den lana hobeto ezagututa.

Aldi berean, dibulgazio-ekimenekin eta ingurumeneari prestakuntza-eduki handia duten ekimenekin batera, jolas-kutsu nabarmena duten beste askotariko jarduerak batzuk egin beharko dira. Izan ere, jardunaldiaren familia-izaera nabarmena da, eta aurreikusten da adin guztietako 4.000-5.000 pertsona (bereziki 0-16 urte bitartekoak) inguruk parte hartuko dutela. Ondorioz, eskaintzek baldintzatzaile horiek kontuan hartu beharko dituzte proposamenetan (bai ezarritako jardueraren eremu osoa eta parte hartzen duen publikoa barne hartzeari dagokionez, bai antolatu beharreko jardueren izaerari berari dagokionez).

Hori esanda, Uraren Jaiaren esparruan egingo diren ekitaldien helburuak bost puntu hauetan zerrendatu ditzakegu:

- Hobeto ezagutzea ura kontsumitu aurretik tratatzeko lanak.
- Ur Partzuergoak bere jarduketaren eremu osoan garatzen duen lana osatzen duten elementuak ezagutzea, zehazki, Beteluriko EUTn egiten direnak.



- Jolasaren, erakustaldiaren, esperimentazioaren eta parte-hartzearen bidez gure eguneroko bizitzako ingurumen-alderdiak orokorrean ulertzea, uraren kontsumo arduratsuari arreta berezia eskainita.
- Adin-tarte zabala duen publiko baten parte-hartze inklusiboari buruzko jarrera hezitzailea, parte-hartzaileen artean eta hartzen gaituen ingurunearekiko dugun interakzioan errespetuzko, lankidetzazko eta ulermen oneko eta poztasuneko balioak indartuta. Horrek jardueren eragina txikiagotzea ekarri beharko du, eta horretarako espazioak jatorrizko egoeran utziko dira ospakizuna amaitzean.
- Adingabeak senide eta lagunekin parte hartzera bultzatzeko jardunaldi komunitarioa garatzen laguntzea, segurtasun- eta dibertimendu-esparru baten barruan. Hala, ikusteko eta taldean parte hartzeko atrakzioak egongo dira, eta ekitaldiak alaitasun osasuntsua izango du, kirolarekin, sormenarekin, ideien adierazpenarekin, jarduera fisikoarekin eta irudimenarekin batera Jaiaren helburu nagusia diren sensibilizazio mezuak positiboki helarazi ahal izateko.

3. Prozesuaren dinamika eta garatu beharreko zereginak

3.1. Prozesuaren dinamika

Eskaintza bakoitzak bere ideia egokitutako jardueren programa bat aurkeztu beharko du, plegu honetan jasotzen diren baldintzen arabera. Horietako batzuk dagoeneko aipatu dira, hala nola okupazio-eremuarena, dimentsionamenduarena eta ospakizun-eguna eta -orduak:

- Jaiaren garapenerako honako gune hauek okupatzeko aukera: Agirre Lehendakariaren parkea (Arrigorriaga) eta Udaletxeko plaza; erantsitako 1. zenbakiko planoan mugatutako eremuak
- 5.000 pertsonen partaidetzarako prestatzea
- Ekitaldia: 2026ko ekainaren 7an, igandean, egingo da, 10:30etik 19:00etara.

Hona hemen eskaintzek bete beharreko beste alderdi batzuk:

- Enpresek laneko segurtasun- eta osasun-plan propioak izan beharko dituzte, eta, nolanahi ere, 5. paragrafoan zentzu horretan deskribatutako eskakizunak bete beharko dituzte. Laneko Arriskuen Prebentzioak kontratatutako enpresari ez ezik, jardunaldia antolatzeke eta egiteko lanak direla-eta hura prestatzeko eta garatzeko lanetan parte hartzen duten enpresa edo autonomo guztiei ere eragingo die.
- Instalazioa bisitatzeko programak segurtasun-neurri bereziak hartzea eskatzen du. Horregatik, hurrengo apartatuan zehazten den bezala, gehienez ere 25 pertsonako taldeak egingo dira eta bisita bakoitzak 60 minutu iraungo du gehienez ere. Halaber, tratamendutegian bi talde egon ahalko dira gehienez aldi berean. Antolatzaileek aldez aurretik egin beharko dute bisitarien talde bakoitza osatuko duten pertsonen erregistroa (ekitaldiaren egunean bertan egin ahal izango da erregistro hori).
- Hori prestatzeko, Partzuergoak kontratatutako enpresaren eskura jarriko ditu langileak prestatzeko eta instalazioaren funtzionamendua ezagutzeko behar diren bitartekoak eta prestasuna; hala ere, begirale-lanetan arituko diren langile horiek ingurumen-zientzien, ingurumen-osasunaren edo antzekoen arloko prestakuntza izan beharko dute. Eskaintzetan begirale-talde osatuko duten pertsonen kopurua jaso beharko da.
- Era berean, arduradun bat izendatuko da lan horiek Partzuergoarekin koordinatzeko, garatu beharreko eragiketa guztietarako, eta garrantzi berezia emango zaie bisitan zehar bete beharreko segurtasun-alderdiei.



Ekitaldiaren egunean, begirale-talde osoa bisiten programaz arduratzen den Partzuergoko pertsonaren agindupean egongo da eta hark gainbegiratuko du haien lana.

- Enpresek gutxienez 300.000 euroko erantzukizun zibileko aseguruia izan beharko dute, zeinak beren erantzukizuna estaliko duen.

- Jaietarako mugatutako guneetako instalazioen muntaketa jaiaren aurreko egunean hasi ahal izango da; ekainaren 6an, larunbatean, 13:00etatik 20:00etara, eta ekainaren 7an, igandea, 08:00etatik 10:00etara. Jaia amaitzean desmuntatu beharko da, igandean, hilak 7. Jarduera horiek enpresa kontratistak egingo ditu. Adjudikaziodunak zainduko ditu jaietako instalazioak eta elementuak, muntaketaren hasieratik jaiaren amaierara arte.

- Enpresa kontratista arduratuko da lanaldia garatzeko instalatzen diren egiturak garbitzeaz eta ondoren desmuntatzeaz, eta ukitutako espazioa lanaldia egin aurretik zegoen baldintza berberetan geratu beharko da.

- Lizitatzailerek honako jarduera hauek jaso beharko dituzte beren eskaintzetan, eta adjudikazio-irizpideen apartatuan baloratuko dira:

Uraren Jaiaren jarduerak:

- Dibertimenduzko jolasak festarako mugatutako eremuetan: haurrei jardunaldian egoteko eta lanpetuta egoteko aukera emango diete, eta, gutxienez, 8-10 parke edo atrakzio izan beharko dituzte, eskaintza bakoitzean zehaztu beharko direnak. Aurreko edizioetan egin zen bezala, kirol ez hain masiboen sustapenari eta horietara hurbiltzeari dagokionez (esaterako, euskal pilota sustatzea, pilotaleku bat jarrita), aurtien skate-a praktikatzeko espazio bat ahalbidetuko da, 6 urtetik gorako publikoari zuzendutako eskolak eta erakustaldiak izango dituenak.
- Tailer didaktikoen eta erakusketen programa Agirre Lehendakariaren parkean eta Udaletxeko plazan: bertan jasoko dira garatu beharreko ingurumen-partaidetzako eta -sentsibilizazioko jarduerak, eta, nolahi ere, aurreikusitako pertsona-kopuruari erantzun egokia eman beharko diote. Lehenengoak (tailer didaktikoak) haurrei zuzenduta egongo dira, bereziki. Hala ere, helduentzat ere pentsatuta egon daitezkeen ekimen osagarriak kontuan hartuko dira, baldin praktikak eta eguneroko bizitzan aplikatzeko modukoak badira.
- Animazio-programa, festarako mugatutako eremuetan: egunean zehar hainbat emanaldi hartuko ditu (antzerkiak, dantzak, musika...) eta gutxienez bost emanaldi izango ditu.
- Aurreku baten bidez emango zaio hasiera Uraren Jaiari. Horregatik, enpresa kontratistak bere programazioan jaso beharko du jarduera hori.
- Jaiaren funtsari jarraikiz, eta Partzuergoak ingurumenarekiko arduratsuak diren jokabideak zabaltzeko duen ahaleginean, gizartea sentsibilizazioko dibulgazio-ekintzetan inplikaturik, Unesco Etxeak egiten duen lana aitortu nahi du. Euskadiko Unesco Zentroaren ordezkariak jaiaren parte hartuko dute; horretarako, stand bat (karpa bat) jarriko dute jaiak irauten duen bitartean, eta antzerki-emanaldien bidez (ipuin-kontalariak) munduko beste leku batzuetako saneamenduen egoera hain prekariora hedatu eta zabaltzeko dute, adingabeengan arreta berezia jarrita.
- “Ez elikatu munstroa” kanpaina aprobetxatuz, Partzuergoak kanpaina honi buruzko materialak izango ditu jai-eremuaren barruan, eta gure herri eta hirietan dauden edukiontzien arabera (organikoa, ontziak, kartoia/papera, olioak eta konposta) hondakinak birziklatzeko eta hautatzeko balioak eta praktikak zabaltzeko ahalegina egingo du.



- Eskaintzetan Beteluriko tratamendutegia bisitatzeko programa jaso beharko da, eta bisita horiek inplementatzeko taldeak eta bitartekoak (materialak eta pertsonalak) antolatzeaz arduratuko dira. Programa hori jardunaldian zehar garatuko da, 11:00etatik 14:30era eta 16:00etatik 18:00etara. Bisitariei gehienez ere 25 pertsonako taldeetan arreta emateko dimentsionatuta egongo da, eta gehienez ere 60 minutuko bisitak egingo dira. Kontuan izan behar da industria-instalazio baterako bisitak direla, hortaz, nahitaezko segurtasun-neurriak bete beharko dira, eta bisita horretan gehienez ere bi talde egon ahal izango dira instalazioaren barruan aldi berean. Bisita-taldeak jai-eremutik tratamendutegira joango dira, eta ondoren, tratamendutegitik jai-gunera itzuliko dira.
- Beharrezkoa da, beraz, eskaintzetan premia horiek betetzeko espazioak ondo zehaztea, hala adierazten duten ageriko kartel edo seinaleekin.
- Girotze-apainketa programa: eskaintza egin duen enpresak jarduera-eremua girotzeko planteatzen dituen ekimenak azaldu beharko dira, baita Arrigorriagako Udalaren eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren identifikazio-marka eremu horretan nola hartuko den kontuan ere.
- Eskaintzetan jaiaren irudia jaso beharko da, hau da, jardunaldiaren balioak jasotzen dituen eta, aldi berean, ospakizunaren aurreko egunetan jendea erakartzeko bezain deigarria den sormen-lana. Aukeratutako sormen-lana eta irudia aldeztu aurreko karteletan eta Arrigorriagako Udalak eta Ur Partzuergoak beren webguneetan eta komunikabideetan argitaratzen dituzten iragarkietan erabiliko dira.
- Azpiegitura-baliabideen programa: enpresek beren eskaintzetan kontuan hartu beharko dituzte honako hauei buruzko alderdi guztiak: komunak, paperontziak, aldagelak, segurtasuna, komun-ontziak, agertokiak, hesiak, haurrentzako gunea edoskitzeko espazioekin, aldagelak, haurdunentzako elikadura, etab.

Proposatutako instalazioen kalitatea, originaltasuna eta aniztasuna baloratuko dira, kontuan hartuta instalazioen hartzailen adin bakoitzari egokitzen zaizkion eta BBUPren jarduera nagusiarekin duten lotura.

4. Lanak egiteko baldintza orokorrak

4.1. Kontratistaren betebeharrak

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak, Arrigorriagako Udalarekin lankidetzan, baldintzen plegu honetan deskribatzen diren jarduerak gainbegiratu ditu, baita horien diseinua, sorrera, ekoizpena, garapena eta kontrola ere.

Ur Partzuergoak, Arrigorriagako Udalarekin lankidetzan, eskubidea izango du enpresa adjudikaziodunari beharrezkotzat jotzen dituen aldaketak egiteko, eskaintako aurrekontua aldatu gabe.

Era berean, enpresa adjudikaziodunak aukera emango die Ur Partzuergoaren eta Arrigorriagako Udalaren mendeko langileei kontratatutako lanen jarraipen zuzena egiteko, eta une oro emango die eskatutako dokumentazioa, emaitzak ebaluatu ahal izateko.

Lanaldirako behar diren ur- eta elektrizitate-horniduren kostuei dagokienez, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren eta Arrigorriagako Udalaren artean sinatutako hitzarmenean ezarritakoa aplikatuko da, Udalaren jarraibideen eta araudiaren arabera.

4.2. Nahitaez bete beharreko beste klausula batzuk



Ingurumena babesten eta atmosfera hobetzen laguntzeko, Uraren Jaia antolatzearen eta garatzearen ondoriozko jarduerak inguruneari sor dakizkiokeen berotegi efektuko gasen emisioak minimizatuko dituzte.

Era berean, Uraren Jaia antolakuntza-ekitaldietan erabil daitezkeen interpretazio-materialak, material didaktikoak, liburuxkak, argitalpenak eta paperezko beste edozein elementu baso-kudeaketa jasangarritik datorren paper birziklatu edo ekologikoan egin beharko dira.

Enpresa adjudikaziodunak Arrigorriagako Udalaren eta Ur Partzuergoaren irudi korporatiboa errespetatu beharko du Jaian erabilitako identifikazio- eta girotze-materialen diseinuan zein sormenean.

Eskaintzek honako kapitulu hauetan antolatutako aurrekontu osoa aurkeztu beharko dute, eta kapitulu horietan Plegu honen 3. puntuan deskribatutako edukia egituratu beharko da:

- Tratamendutegia bisitatzeko programa
- Jolas-jokoen programa
- Animazio-programa
- Tailer didaktikoen eta erakusketen programa
- Munduan saneamenduari buruz dauden arazoen zabalkundea eta sentsibilizazioa Unesco Etxearen eskutik
- "Ez elikatu munstroa" kanpainako dibulgazio-materialak
- Jaia irudia
- Beste batzuk (erantzukizun zibileko aseguruia/Azpiegitura-baliabideak/Girotzea-apainketa...)

Ur Partzuergoak beretzat gordetzen du enpresa kontratistak proposatutako diseinuan eta sormenean aldaketak egiteko eskubidea, ekitaldia egin aurreko faseetan, betiere aurrekontua handitzen ez bada eta beharrezkotzat jotzen badira.

Enpresa adjudikaziodunak ekitaldian zehar egindako lanek une oro bete beharko dituzte indarrean dagoen Datuak Babesteko Legeari buruzko betebeharrak, eta kontuan hartu beharko dute genero-berdintasuna sustatzeko lege ezarritakoa, hizkuntzaren erabilera ez-sexista erabiltzeari, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-irudia transmititzeari eta estereotipo sexistarik gabeko materialak sortzeari eta erabiltzeari dagokienez.

Era berean, arreta berezia eskainiko zaio gure erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera egokiari, batez ere zuzeneko arretako eta jendearekiko tratuko funtzioak dakartzaten zereginetan (jaiaren egitarauaren parte diren eta sortutako langileak eta baliabide-materialak barne). Uraren Jaia dokumentazio inprimatu guztia bi hizkuntza ofizialetan agertu beharko da, baita iragarpen-kartela ere. Bisitetako begiraleek, halaber, taldeen beharretara egokitu beharko dute, hizkuntza euskara edo gaztelania bada.

5. Laneko arriskuen prebentzioa

Adjudikaziodunari dagokio zerbitzua ematen den bitartean laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko prebentzio-jarduerak garatzeko beharrezko baliabideak antolatzea.

5.1 Atariko ekintzak

Lanak hasi aurretik, 31/95 Legearen 24. artikuluan eta 171/2004 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera koordinatuko dira enpresa-jarduerak, eta lan horietarako behar diren koordinazio-bitartekoak esleituko dira, kontuan hartuta laneko arriskugarritasuna, parte hartzen duten langileen eta enpresen kopurua eta abar, 171/2004 Errege Dekretuaren 14. artikuluen arabera.



Lanak hasi aurretik, BBUPren kontratuaren arduradunaren bidez, honako hauek jarriko dira enpresa kontratistaren eskura:

- Beteluriko EUTko Lan Baldintzen Ebaluazioa, zeinak enpresa kontratistako langileek Beteluriko EUTn bisitak egitearen ondorioz izango dituzten arriskuak eta arrisku horiek saihesteko edo txikiagotzeko aplikatu beharreko neurriak jasotzen dituen.
- Beteluriko EUTko autobabeserako planeko kanpoko enpresentzako jarraibideak eta EUTko planoak, elkarguneen kokapena adierazten duena.

Kontratuaren arduradunak enpresa adjudikaziodunaren ordezkariari eskatuko dio honako dokumentu hauek entregatzeko lanak hasi aurretik:

- a) BBUPk agiriak entregatu izanaren hartu-agiria, sinatuta eta zigilatuta (aurreko apartatuan adierazitakoak)
- b) Egin beharreko lanen arriskuen ebaluazioa.
- c) Azpikontratazio-erregistroa
- d) Lanetan parte hartzen duten langileen zerrenda.
- e) Segurtasuneko eta Prebentzio Baliabideko arduraduna izendatzea (azken hori, hala badagokio).
- f) Prebentzioko osasuna zaintzeko erregistroa (dokumentazio ofizialaren kopia erantsita).
- g) Langileentzako prestakuntza- eta prebentzio-informazioaren erregistroa (dokumentazio ofizialaren kopia erantsita, halakorik balego).
- h) NBEen entrega-erregistroa (langileek sinatuta, hala badagokio).
- i) Lanetan erabilitako produktu kimikoen segurtasun-fitxa (hala badagokio).
- j) Lan-ekipamenduen erregistroa, hala badagokio (dokumentazio ofizialaren kopia erantsita, halakorik balego).
 - Matrikulatutako Lan Ekipoen Erregistroa (dokumentazio ofizialaren kopia erantsita).
 - Lan-ekipamendu mugikorren (autopropulsaioak edo ez) erregistroa (dokumentazio ofizialaren kopia erantsita, halakorik balego).
 - Altuerako aldi baterako lanetarako ekipoen erregistroa (dokumentazio ofizialaren kopia erantsita, halakorik balego).
 - Laneko ekipoen eta garabi mugikor autopropulsaioaren erregistroa (dokumentazio ofizialaren kopia erantsita).
- k) Arrisku elektrikoa dakarten lanak egiteko langileen baimenaren/kualifikazioaren erregistroa, 614/2001 Errege Dekretuaren arabera (hala badagokio).
- l) Partzuergoaren instalazioetan sartzeko baimen-eskaera.
- m) Prebentzio-antolaketa mota.
- n) Erantzukizun zibileko aseguruia eta ordainketa egunean izatearen egiaztatzea.
- o) Gizarte Segurantzarekin egunean egotearen egiaztatzea (hilero bidaliko da).
- p) Gizarte Segurantzaren Diruzaintzan egindako kotizazioaren justifikazioa, langileen zerrendan dauden pertsonak agertzen direnekoa. Bestela, Gizarte Segurantzako alta-agiriak (langile hasi berrien kasuan) edo, hala badagokio, autonomoen ordainagiria.
- q) Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren 10/2015 Legeari atxikitzea, bai eta hura garatzen duen indarreko gainerako araudiari ere, beharrezkoa izanez gero, lanaldiaren ezaugarrien arabera beharrezkoak diren anbulantzien eta sorospen- eta laguntza-bitartekoen hornidurari dagokionez.

Gainera:

- a) Arrisku bereziko lanetarako berariazko prebentzio-neurriak ezarriko dira, hala badagokio.
- b) Nolanahi ere, bi enpresen aldi bereko eta baterako ekintzen ondorioz sor edo alda daitezkeen arriskuak batera identifikatuko dira.



- c) Enpresa kontratistak Larrialdietarako Jarraibidea egin beharko du, non zehaztuko baita nola jardungo duten eta zer baliabide tekniko eta giza baliabide izango diren, Beteluriko EUTko autobabeserako plana aktibatuz gero langile guztiak ebakatu behar badira.
- d) Jarraibide horiek enpresa kontratistako langileek eta azpikontrataturako enpresetakoek ezagutu beharko dituzte. Gainera, kopia bat emango zaio lantegiko segurtasun-enpresari.

5.2 Lana gauzatzea

- a) Kontratistari egokituko zaio zerbitzua egiten duten enpresak edo langileek Arriskuen Ebaluazioaren, Lan Prozeduraren eta beharrezko NBEen berri dutela ziurtatzea.
- b) Kontratistari dagokio baldintza-plegu honetan jasotako lanak gauzatzeko beharrezkoak diren babes kolektiboko ekipamendu guztiak edukitzea. (Esaterako: seinaleztapen-elementuak, balizaje-elementuak, etab.). Horiek jartzea ere kontratistari dagokio, ukitutako eremuak eta ezarri beharreko pasabide-mugak BBUPekin adostu ondoren.
- c) BBUPren instalazioen barruan istripuren bat (bajarekin edo bajarik gabe) edo gorabeheraren bat gertatuz gero, enpresa kontratistak kontratuaren kontrol eta jarraipeneko arduradunari jakinaraziko dio BEREHALA, eta horrek, aldi berean, BBUPko LAPko sailari.
Enpresa kontratistak istripuaren ikertuko du, ikerketa-txosten horren kopia bidaliko dio kontratuaren arduradunari, eta beste kopia bidaliko dio BBUPko LAPko sailari, beharrezkoak diren neurriak har ditzan.

Enpresa kontratistek, azpikontratistek eta langile autonomoek konpromisoa hartuko dute BBUPk ezarritako jokabide- eta jarduketa-arauak eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legea une oro errespetatzeko.

6. Izapideak

Prozedura irekia.

Bilbon, 2025eko abenduaren 30ean

Irudi eta Erreprografiako zerbitzuburua
Jesús M^a Morán Salguero